

## 1

**BAT-BATEAN,  
BEHINIK BEHIN,  
BATIK BAT (\*)**

*Bat-batean* XVII. mendearen erdialdeaz gero erabiltzen da Iparraldean eta XVIII.aren erdialdeaz gero Hegoaldean. Esapide horrek badu aldaera bat, *bet-betan*, XVIII. mendearen hasieraz gero Iparraldean erabiltzen dena. Lehen aldaerari dagokionez, literaturan erabili izan diren grafiak *bat batean* eta, batez ere, *bat-batean* dira. Gaur egun askotan ikusten den *bapatean* idazkera ez da 1930 ingurua arte agertzen eta ez da 1970 ingurua arte ia erabiltzen. Bestalde, ez da inoiz Iparraldeko tradizioan azaltzen. Orobat, *bet-betan* aldaerari dagokionez, ez da ia idazkera *p*-dunik literatura tradizio guztian. Euskaltzaindiak hitz elkartuak idazteko eman dituen gomendioen arabera, *bat-batean* da esapide honi dagokion idazkera.

*Behinik behin* esapidea Zuberoakoan izan ezik gainerako literatura tradizio guztietan erabiltzen da, nahiz Hegoaldean maizago agertzen den. Idazkera *p*-dunak, ia gipuzkerazko testuetan soilik geratzen dira, XIX. mendearen bigarren erdialdeaz geroz, eta oro har *behinik behin* da tradizio hoberena duen idazkera, are XX. mendean. Bestalde, azken urte hauetan euskara batuak grafia *p*-dunetan erabat baztertua ekarri du, antza denez.

*Batik bat*-i dagokionez, ez du aurreko esapideak duen literatura tradizioa, ez baita ia 1930 arte azaltzen testuetan, eta Hegoaldekoa soilik baita. Esapide honetan, bestalde, badirudi ia hasieratik bertatik grafia *p*-dunak *p* gabeak adina erabili direla, are eruduzko idazleen artean. Euskara batuan ere bi formak, *batipat* eta *batik bat*, ageri dira, nahiz bietan lehena gehiago. Dena den, *batik bat* grafia erregularragoa da, horrelako egitura duten gainerakoekin eta hitz elkartuei buruz emandako gomendioekin konparatuz.

---

(\*) *Oharra*: ikus *Euskera* 1992, 2, 37. liburukia (2. aldia) 721. orritik aurrera.

**Beraz, Euskaltzaindiak hau erabakitzen du: idatz dadila euskara batuan *bat-batean* (eta halaber *bet-betan*), eta ildo beretik *bat-bateko* eta *bat-batekotasun*; orobat, idatz dadila euskara batuan *behinik behin* eta *batik bat*.**

Honekin batera, Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du esapide hauen ahoskerak betiko legeen arabera egitea ongi dela (*batipat*, adibidez).

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)